

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

AMURRIKO UDALA

Laburpena, Amurriko Udaleko alkateak 2026ko abuztuaren 21ean emandako Dekretuarena

BDNS (Identif.): 926043.

Bat etorri Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrek 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan jasotakoarekin, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Deialdiaren testu osoa Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean dago ikusgai: (<https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/926043>).

“Erakunde adjudikatzaila: Amurriko Udala.

Bulegoa: Nekazaritza, Abeltzaintza eta Mendiak Atala eta Ingurumen Atala.

Lehiaketak Amurrion egingo dira, 2026ko irailaren 20an.

Araudia: Artzain Eguneko lehiaketak arautzen dituen ordenantza, 2026ko uztailaren 15eko ALHAOn (80. zk.) argitaratua.

Dirulaguntza egozten zaien aurrekontu kredituak: aurreikusitako sariak (guztira 2.800,00 euro) Amurriko Udalaren 41903.480 aurrekontu partidaren kontura ordainduko dira.

Dirulaguntzaren xedea, baldintzak eta helburua: nekazaritza eta abeltzaintza sektorea, oro har, eta, bereziki, artzaintza sektorea bultzatzea gure eskualdean eta lurraldean, ardi latxaren hazkuntza ezagutzera emanez eta artzainek urtean zehar egiten duten lana omenduz eta aitortuz, latxa arraza mantendu eta hobetzen baitute, bai eta azken produktu bikainak eskaintzen ere, hala nola esne gordinez egindako gazta eta arraza horretako esne arkumeak. Azoka erakusleiko bat da artzainek beren produktuak sustatzeko egiten duten lana aintzatesteko. Xedea eta baldintza zehatzak lehiaketa bakoitzaren oinarrietan zehaztutakoak dira.

Norgehiagoka prozedura: Artzain Egunari lotutako lehiaketetan, dirulaguntza norgehiagoka bidez ematen da.

Dirulaguntza eskatzeko betekizunak eta horiek egiaztatzeko modua: oinarriak, informazioa eta dokumentazioa Amurriko Udaleko Nekazaritza, Abeltzaintza eta Mendien Arloan edo Ingurumen Arloan aztertu ahal izango dira (Juan Urrutia plaza z.g., 01470 posta kodea, 945 891161 telefono zenbakia, 183 luzapena), deialdia ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik 2026ko irailaren 4ra arte, astelehenetik ostiralera, 8:00etatik 13:30era.

Prozedura izapidetzeko eta ebazteko organo eskudunak: prozedura antolatze eta bideratzeko organo eskuduna batzorde bat izango da, eta honako hauek osatuko dute: Amurriko Udaleko alkateak, Jardueren eta Natura Ingurunearen ingeniariak eta Ingurumen teknikariak. Ebazteko organo eskuduna Amurriko Udaleko alkatea izango da, edo hark eskuordetzen duen organoa.

Eskabideak aurkezteko epea eta lekua: izen emateak Amurriko Udaleko egoitza elektronikoaren bidez egingo dira, edo Amurriko Udaleko herritarrak atenditzeko zerbitzuan, deialdia ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik hasita, irailaren 4ko 13:00ak baino lehen, dagoen eskaera orria betez.

Ebazteko eta jakinarazteko epea: eskaerak jasotakoan, Udalak gehienez ere astebeteko epean ebartziko ditu, eskaerak aurkezteko epea amaitzen denetik aurrera, salbu eta zuzendu egin behar badira; kasu horretan, eskaera egiteko beharrezkoa den dokumentazio guztia aurkezten den datatik aurrera hasiko da zenbatzen epea. Epe hori igaro eta ebazpenik eman ez bada, eskatzaileak ulertu ahal izango du bere eskaera ezetsi egin dela. Ebazpenak amaiera ematen dio administrazio bideari, eta posta ziurtatu bidez jakinaraziko zaie eskatzaileei».

Eskaerarekin batera aurkeztu beharreko dokumentuak eta informazioak: lehiaketa bakoitzaren oinarrietan zehazten dira.

Eskabideak baloratzeko irizpideak: lehiaketa bakoitzaren oinarrietan adierazten dira.

Jakinarazteko edo argiratzeko modua: bat etorritik Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 40. eta horrekin bat datozen artikuluetan xedatutakoarekin.

LATXA ARRAZAKO ARDIEN PROBINTZIA ARTEKO XXXII. LEHIAKETA

Xedea: latxa arrazako abereen lehiaketa da, zeinean talde bakoitzean (jarduera nagusia eta beste batzuk) aurkeztutako sortetatik morfologiaz eta itxuraz hoberenak diren biak saritzen baitira. Hiru atal desberdinetan har daiteke parte: Norgehiagoka bidez egiten da: haragi sorta. 5 arkume eme eta ar 1eko sorta. 5 ardiko sorta.

Baldintzak: lehiaketa Arabako Lurralde Historikoko edozein udalerri edo herritako eta Bizkaiko Urduña eta Orozkoko udalerrietako ardi abeltzaintzat da. Abeltzaintzako ustiategi bakoitzak atal bakoitzeko sorta bat eta ahari ale 1 eduki ahal izango ditu gehienez. Abereek azoka esparruan egon beharko dute lehiaketaren eguneko 9:30ak baino lehen. Lehiatzen den azientak lege eskatzen diren osasun baldintzak bete beharko ditu. Lehiaketan parte hartzen duten animaliak behar bezala identifikatuta aurkeztu beharko dira, eta bruzelosirik (*Brucella melitensis*) eta ahariaren epididimitis kutsakorrik (*Brucella ovis*) gabeko ustiategitik datozela egiaztatzen duen ziurtagiri ofiziala aurkeztu beharko dute. Abereen lekualdaketa baldintza higieniko eta sanitario egokietan dauden ibilgailuetan egin beharko dira, eta abereen jatorriari eta osasunari buruzko gidekin abalaturik egongo dira. Epaimahaiak egokitzen dituen probak egin ahal izango dizkio ganaduari. Kalifikazioa egiten den unean, jabeak ezin izango dira egon abereekin. Azienta garraiatzea abeltzainaren kontura izango da. Erakundeak garraioa diruz lagunduko du: 100,00 euro ordainduko ditu ardi sorta bakoitzeko, eta 30,00 euro ahari bakoitzeko. Saritu gabeko parte hartzaile bakoitzak 40,00 euroko partaidetza dieta jasotzeko eskubidea izango du, gutxienez bi ataletan. Atal bakoitzean gehienez ere hogeita sorta onartuko dira, eta lehentasuna izango dute eskualdeko abeltzaintza ustiategiei eta jarduera nagusiki gauzatzen duten pertsonenak direnek. Atal bakoitzeko sortak bi taldetan banatuko dira: jarduera nagusia dauden azientaren titularrei dagozkienak (NNP), eta gainerakoak; horrela, epaimahaiaren puntuazioa bereizita eta talde bakoitzean egin ahal izango da.

Eskaerarekin batera aurkeztu beharreko dokumentuak eta informazioa: behar bezala betetako eskabide bat aurkeztuko da, zeinaren eredia Herritarrei Arreta Emateko Zerbitzuak emango duen, edo Amurrioko Udaren web orrian egongo den. Parte hartu nahi duen sorta bakoitzerako eskabide bat egingo da, eta datu guzti hauek zehaztuko dira: abeltzainaren ustiapen zenbakia, sorta bakoitzean parte hartzen duen azientaren belarritako zenbakia, sexua eta jaiotza data, etab. Izen emateak Amurrioko Udaleko egoitza elektronikoaren bidez egingo dira, edo Amurrioko Udaleko herritarrek atenditzeko zerbitzuan, deialdia ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik hasita, irailaren 4ko 13:00ak baino lehen, dagoen eskaera orria betez.

Eskabideak baloratzeko irizpideak: animaliek epaimahaiak adostutako probak egin beharko dituzte. Sorta guztiak ikusita, haien balioesteko irizpide objektiboak aplikatuko ditu epaimahaiak (morfologia, itxura eta garbitasuna) eta talde eta atal bakoitzeko sorta irabazleen akta idatziko du.

RUPERTO CASANOVAREN OROITZAPENEZKO XIX. GAZTA LEHIAKETA

Xedea: gazta lehiaketa bat da, zeinean parte hartzailearen ustiatetik bertako ardi latxen esne gordinez egindako gaztak lehiatzen diren, eta zaporez, testuraz eta itxuraz hoberenak diren hiru gaztak saritzen diren.

Baldintzak: Lehiaketara aurkeztu beharreko gaztak parte hartzailearen ustiatetik bertako ardiaren esne gordinarekin egin beharko dira. Gutxienez 2 hilabeteko heltzea izango dute.

* Artzaintzan aritzen diren bi pertsonak edo gehiagok upa berean parte hartzen badute, gazta

bakarra aurkeztu beharko dute, kooperatibaren edo elkartearen izenean (gazta bakarra upa bakoitzeko).^{*} Beharrezkoa da artzaintza ustiategi arabar baten titulartasuna izatea, soilik ardi latxen gutxienez 100 abelburu izango dituen.^{*} Parte hartzen dutenek gazta egiteko erregistro sanitarioaren titulartasuna izan beharko dute, eta hala eskatzen bazaie, justifikatu egin beharko dute.^{*} Lehiaketara aurkeztu beharreko gaztak nahitaez izan beharko du kaseina plaka.^{*} Gaztaren baten jatorriari buruzko zalantzarik izanez gero, erakundeak beretzat gordetzen du dagozkion ikerketak egiteko neurri egokiak hartzeko eskubidea.

Eskabidearekin batera aurkeztu beharreko agiriak eta informazioak: izen emateak Idiazabal jatorri-deituraren egoitzan egingo dira, abuztuaren 15etik aurrera eta irailaren 11ko 13:00ak baino lehen, eta parte hartzeko eskabidea datu pertsonalen identifikazioarekin beteko da.

Eskabideen balioespen irizpideak: epaimahaiko bi mahaik balioetsiko dituzte gaztak. Idiazabal jatorri-deiturak, Artzai Gazta elkarteak eta Amurrioko Udalak izendatuko dituzte kide horiek. Epaimahaiko mahai bakoitza osatuko dute kontseilu arautzaileko dastatze batzorde ofizialeko pertsona batek eta beste biak Amurrioko Udalak eta Artzai Gazta elkarteak aukeratuko dituzte, hurrenez hurren. Bi mahaiek gazta guztiak aztertu edo dastatu ondoren, horiek baloratzeko irizpide objektiboak aplikatuz:^{*} Zaporea.^{*} Testura.^{*} Itxura. Gazta irabazleen akta egingo da. Epaimahaikide guztiek sinatutako akta horretan oinarrituta, gaztandegi irabazleak jakinaraziko dira 2026ko irailaren 20an, 13:30 aldera, egingo den sariak banatzeko ekitaldian.

XIII. GAZTA LEHIAKETA HERRIKOIA

Xedea: gazta lehiaketa bat da, zeinetan parte hartzaile bakoitzaren ustiategiko bertako ardi latxen esne gordinez egindako gaztak lehiatzen baitira, eta azokan bildutako herritarrek onena iritzitako gazta saritzen da; herritar bakoitzak, gutxienez, aurkeztutako lau gazta dastatu behar ditu, eta bere gustukoenari eman botoa.

Baldintzak: lehiaketan parte hartuko dute Juan Urrutia plazan postua daukaten gazta erakusle guztiak. Horretarako, saltzen dituzten gaztak beraien ustiategian bertan ardi latxen esne gordinez eginak izan behar dira, eta kaseina plaka eta Osasun Ministerioaren APPCC plaka (puntu kritikoen eta kontrol puntuen analisia) eduki behar dituzte. Lehentasuna izango dute Nerbioi Garaiko gaztandegiek eta ekoizpen ekologikoan alta emanda duten ustiategiei.

Eskaerarekin batera aurkeztu beharreko dokumentuak eta informazioak: izen emateak Amurrioko Udalaren egoitza elektronikoaren bidez egingo dira, edo Amurrioko Udalaren herritarrentzako arreta zerbitzuaren bidez, deialdia ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik irailaren 4ko 13:00ak arte, eta datu pertsonalak identifikatuta beteko da parte hartzeko eskaera. Gazta saltoki bat lortzeko, zuzeneko ekoizleak direla egiaztatu beharko dute. Horretarako, ustiapen zenbakia aurkeztu beharko dute, dagokion Gizarte Segurantzako araubidean alta emanda daudela, kuota ordainduta dutela (azken ordainagiria aurkeztu), osasun erregistroa dutela eta manipulatzailer txartela dutela, behar izanez gero.

Eskabideen balioespen irizpideak: goizean zehar eta 13:30era bitartean, gutxienez lau gazta dastatu dituzten parte hartzaileek gaztarik onena bozkatu ahal izango dute. Horretarako, dagokion txartela bete beharko dute. Parte hartzaileen artean artisau produktuen sorta batzuk zozketatuko dira. 13:30ean, hautestontzia itxi, botoak zenbatu eta botoen akta egingo da. Zenbaketaz arduratzen den erakundeak sinatutako akta horretan oinarrituta, gaztandegi irabazlea zein den iragarriko da sariak emateko ekitaldian».

Amurrio, 2026ko abuztuaren 24a

Alkatea

JOSÉ RAMÓN MOLINUEVO LAÑA